



AMASA-VILLABONA  
Villabonako Udala



Zizurkilgo Udala



ASTEASUKO  
udala



ADUNA<sub>ko</sub>  
udala



ALKIZAKO  
UDALA

## **GIZA ESKUBIDEAK, ELKARBIZITZA, BAKEA**

# **EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEAK ERRESPETATU SALBUESPEN LEGEDIA INDARGABETU!**

Gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabekoak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko, eta beren familiei elkartasuna adierazteko egunak ere badira.

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek pairatzen duten salbuespenezko kartzela-politika gaitzesten dugu eta espainiar eta frantziar Estatuei presoek eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzatela exijitzen diegu.

Azken urtean bereziki, aurrera urrats batzuk eman dira eta positiboki baloratzen ditugu. Izan diren presoek hurbiletak, dudarik gabe, senideen zama arintzea ekarri du presoak bisitatzeko distantzia luzeak murriztean. Baina ez dezagun ahaztu oraindik 104 preso daudela Euskal Herritik kanpo, tartean Aiztondoko preso guztiak, eta ondorioz haien eta haien familien eskubideak urratzen jarraitzen dutela.

Ez dezagun ahaztu, ezta ere, euskal presoek % 94k bigarren graduan jarraitzen duela, eta 10 baino ez direla hirugarren graduan daudenak, egoera horretan 70 preso egon beharko lirakeenean, gainera horietatik 52k eskubidea dute jada baldintzapeko askatasunean egoteko. Preso horien % 90ek espetxe-baimenak izateko aukera izan beharko luke, horretarako zigorraren dagokien zatia beteta dutelako, baina ez zaie eskubide horiek aplikatzen.

Guzti horri, justiziaren jarrera atzerakoia batzen zaio. Espetxeetako Juntatik gradu-progresioren bat edo espetxe-baimenen bat lortzen denean, Auzitegi Nazionalak errekurritu, blokeatu eta geldiarazi egiten ditu erabaki horiek.

Honenbestez, Aiztondo bailarako udal ordezkariok, datorren **abenduaren 31n arratsaldeko 19:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila** deitzea erabaki dugu.

Honakoak dira manifestazio honen bidez, kaleratu nahi ditugun oinarritzko eskaerak:

**1 - Euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko kartzela neurriekin amaitzea eta legedia arrunta aplikatzea:**

Beharrezkoa da presoek bidegabeko zigor erantsia ezartzen dieten neurriekin behin betirako amaitzea eta euskal presoek preso guztiak dituzten eskubide berberak aitortzea: Gradu progresioak, espetxe baimenak, baldintzapeko askatasunak etab.

## **2 - Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea.**

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxe batean artatuak izateko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden presoek berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

## **3 - 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.**

**Aiztondon, 2021eko abenduan**